AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1533

AGINDUA, 2013ko martxoaren 13koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, M.ª Elena Fernández de Gamboa Beitia andrea Energia eta Meategien Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Elena Fernández de Gamboa Beitia andrea Energia eta Meategien Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren kargutik kentzea (520010 kodea, 56 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2013ko martxoaren 18tik aurrera hartuko du indarra.

Hirugarrena.– Administrazio bideari amaiera ematen dion Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, eman duen organoaren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errrekurtsoa Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 13a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.